

IGANDEKO
LANARI EZ!!!


IGANDEKO LANARI EZ!!!

Berezitasun bat arau bat bilakaarazten ari dira !!! Ez !!!

**PAUSA TA PESTA EGUNAK
BIZI EGUNAK !!!**



www.ieh.lab.eus



LAB sindikatak salatzen du igandeko lana orokortzen segitu ezker (4 milioi langile pasaturik hunkituak frantses estaduan, baimen berezi aukera gero eta gehiago), besta eta pausa egun hauek egun arruntak bilakatuko direla, merkataritzaren logikak, lagunarte eta familiarteari aurre hartuz.

ASKATASUN FALTSU BAT DA ! HAUTATZEKO ESKUBIDE FALTSU BAT !

Dokumentu hontan, gaiari buruzko informazio bilduma bat aurkitzen ahal duzue:

- igandeko pausa egunaren historiko ttiki bat
- gaur egun zer dion lan kodigoak (legea, baimen bereziak)
- xifre batzu (nor hunkitua ta beste)
- ondorioak (elkar bizitzaren suntsiketa, behar berri batzu sortzen, komertzio ttikien hilketa, ...)
- derogazio eskaerak: LAB sindikataren inkesta Ipar Euskal Herrian

Nundik heldu da igandeko pausa eguna:

Duela 100 urte, 1906 ko uztaillaren 13 an, asteko pausa egunaren legea plantatua izan zen. Industria eta komertsioa langileek 24 orduko pausa, 6 egun segidan lan egin ondoren, ukaiteko eskubidea lortu zuten. Legearen 2.artikuluak igandean finkatzen du pausa egun hori.

Ez ezagun pundu bat :

1906 ko lege hori ez dute langileek pasarazi. Garai hortan atelieretan eta lantegietan lortua zuten pausa eguna astean behin ukaitea. Egiazki, komertsioetan ari ziren langileak, 1880 an lehen denda haundien sorkuntzarekin batera, mobilizatu ziren. Haien bizi esperantza 40 urte baino guttiago zelarik enplegatuen %45 entzat. Manifestaldiak antolatzen zituzten, beste langileen sustenguearekin, eta Bordalen adibidez 3000 pertsona mobilizatzen lortu zuten. Sortu zuten indar horrekin, azkenean, senatariek 1906 an lege hori bozkatu zuten. Hori izan zen langileen lehen garaipen soziala.

Idea faltsua : igandeko pausak ez du ezer erlijioari lotua :

1906 ko legetik landa, igandeko pausa ez da gehiago batere erlijioari lotua. 1814 an emana izan zen igandeko « santifikazio legea » kendua izan zen 1880 an. 1906 an, igandeko pausa laikoa izateko asmoz, bi baloretan bere erroak hartzen ditu: pausa eta familia.

1980 geroztik, komertsio eta bereziki denda handien presioarekin, 1906 ko igandeko pausaren lege hori desagertarazi nahi dute. Estakuru bezala kontsumitzaileen eskaera bat dela diote, baita errentabilitate ekonomiko behar bat, enpleguak sortzeko aukera aitzakitzat hartuz...

1989 an, Kontseilu ekonomiko eta sozialaren txosten batek eskaera hori ezeztatu du, erranez lege horren kentzea lanjerosa izanen zela hurbileko komertsioentzat baita familien biziarentzat, sozial baztertze arrisku bat izanki ere igandetan lan eginen duten langileentzat.



Zer dion lan kodigoak:

Art.L 3131-1 : langile bakoitzak 11 ordu segidaneko pausa ukan behar du egunero.

Art.L 3132-1 : debekatua da langile bat 6 egun astean baino gehiago lanaraztea.

Art.L 3132-2 : astero 24 ordu segidaneko pausa behar da, honi gehiturik egun bakoitz ditugun pausa orduak.

Art.L 3132-3: langileen interesarentzat, pausa eguna igandean emana da.

Eta ondotik baimen bereziak agertzen dira... denetarik eta gehienak justifikazio gabekoak. Maila hortan epaileek dituzten iritzi ezberdinak jakinarazten dituzte eta beraz hartuak diren erabakietan ikusten da.

Baimen bereziak batzutan Prefeten erabakiak, auzapezarenak edo ta beste izan daitezke, baita geografia mailako erabakiak ere.

Legedi baimen berezietan, atxemaiten ditugu baimenak **produkzio behar berezietan lotuak** direnak, baita **publikoaren beharri**. Hunkituak diren aktibitate guzien lista R.3132-5 lege artikuluan aurkitu daiteke (hotel, jatetxe, tabako, xitxuketa komertsio...)

Baimen berezi horiek ere usu baieztatuak dira **janariari lotuak** diren aktibitateetan, hala nola idekitzen ahal duten **igande guziz arratsaldeko ordu batak arte**....

Usaiazko baimen berezietan atxemaiten dira bereziki **etengabeko lanari lotuak** direnak. Industrian, konbenio edo akordio kolektiboek finkatzen ahal dute hori, pausa egunak aldizka antolatuz langileentzat. Beraz langile batzuek igandetan lan egiten ahal dute. Prozedura berezi bat jarraitu eta gero lan inspektoreak baimena emaiten ahal du.

Baimen berezi prefektoralak hartuak dira publikoari eta lantegiaren funtzionamendu normalari kalterik ez egiteko. Zein diren egoera hortan jakiteko ikus **lan kodigoaren L.3132-20 artikulua**.

Auzapezek komertsioeri emandako baimen bereziak dute eztabaida gehiena sortzen. Lehen 5 igandez posible zen idekitzea eta orain (2016 tik) **12 igandera** pasatua izan da.

Komertsioek igande horien datak eman behar dituzte abenduaren 31 a baino lehenago, hurrengo urteari begira. (ikus loturik LAB ek egin duen inkesta horri buruz Euskal Herrian).

Azkenik, badira ere **baimen bereziak geografia mailan oinarritzen direnak**...

Atxemaiten dira **Zonalde Turistiko Internazionalak (ZTI)** deituak direnak. Izugarrizko turistiko aktibitateko zonaldeak dira. (Adibidez : Parise, Cannes, Deauville, Nice, ...)

Badira ere **turista asko** heldu diren beste euskaldeak edo **merkataritza aktibitate azkarreko** zonak...

Zona horiek euskaldeko prefetak finkatzen ditu (ikus **R.3132-20 lan kodigoaren artikulua**).

Geltoki zona batzu ere hortan sartzen dira: Pariseko geltokiak (St Lazare, Austerlitz, ...) Avignon, Bordale (argazkia), Lyon, Marseille ko geltokiak ta beste.

Zein langile hunkitua den eta zein baldintzetan:

2015 an Frantziako lan ministerioak publikatutako inkesta batean, ohartzen gara 10 langileen gain 3 ek (%28,4) diote igande batzuetan lan egin dutela 2013 an. ...Bainan bakarrik erdia baino batzu gehiagok erraiten dute konpensazio bat ukan dutela... Sektoreka, jatetxe eta hostelerian dute langile gehienek igandetan lan egiten (%60,6) baina bakarrik %16,9 ek erraiten dute orduak konpensatuak ukan dituztela...

Beste sektore batzutan bezala sektore hontan betirako baimen bereziak badira eta konpensazio berezirik ukan gabe, « haien ibilmoldea gatik eta publikoarentzat beharrezkoa delako »...


Inkestak erakusten du ere hospitaleko funtzio publikoan %64,2 k igandetan lan egiten dutela.

Komertsio mailan, nun gaia oso eztabaidatua den, ikusten dugu emendapen haundi bat izan dela, %30 etik 2005 an, %50ra pasa da 2013 an eta geroztik gehiago igotzen segitu duela segur da. Komertsioen %3 a baino gehiagok idekitzen dute igandetan baimen prefektoral edo munuzipal berezien bidez bainan dena den askok ere baimenik gabe idekitzen dutela badakigu, arrunt ilegalki ! Orotara 4 milioi langile baino gehiago lanean ari dira igandetan. Eta ainitz da!

Jakinez komertsioa eta turismoa aktibitate nagusienak direla Euskal Herrian, pentsa dezakegu igandetan lan egiten duten langileen kopurua animalekoa dela gure Herrian!

Baldintzei dagokionez, goian ikusi bezala, ez da konpensazio beharrezkorik sektore askotan... Bestentzat lan kodigoak ditu baseak ematen : derrigorrezko pausa kopensazioa eta emendatu ordainketa.

Macron legeak proposatzen du igandetako langileak gehiago ordaintzea euskalde turistiko eta komertsio zonetan baina... enpresa edo interpro akordio bidez... Maleruski, nola gauzak ez diren oraindik ongi definituak... zaila gelditzen da... Dena den lege horrek ez du langile askorentzat balio (ikus zerrenda lan kodigoaren R.3132-5 artikuluan).



Prefetak edo auzapezak emandako baimen berezietan, jakin behar da ere estakuru faltsu batean hartzen dutela funtsa :« **boluntarior**tza »...

« Bakarrik borondate osoz eta idatziz baimena emanik nahi duten langileek lan eginen dute. Enpresa batek ezin du pertsona baten igandetari lan egiteko ezezkoa kontutan hartu azken hau ez kontratatzeko. Igandeko lana ezeztatzen duen langile bat ezin da diskriminatua izan bere lanean. Igandetari ez lan egiteko gogoia erakustea ez da kanporaketa edo falta baten sortzeko baldintza bat izaiten ahal. »...

Denek badakigu lan kodigoan boluntarior tza ez dela existitzen !

Lan kontratu bat ezaugarritzen duena da « juridiko menpekotasun lotura permanente » baten ukaitea.

Hara zergatik langile gehienek lan egiten duten igandetari. Ez da batere borondatez bainan bai nagusiak nahi duelako !!!

Azpijoko, manipulazio itsusi bat baizik ez da !!!

Igandetari lan egiten duten langileen gaiarekin segitzeko, badira lan ainitz eramanak gai honi buruz, inkesta eta beste (adibidez duela gutti Sud Ouest egunkarian) eta denek xifre « bitxi » edo « xelebrea » berdintsuak ematen dituzte... galdezkatu pertsonen %75 ak nahi like igandetari dendak idekiak izan daitezen baina horietariko % 85 ak ez du igandetari lan egin nahi !!



Ondorioak:

Ikerketa askok argi eta garbi erakutsia dute hori, igandetan lanean artzen direnek galtzen dute beren familia eta adixkidekin egoiteko denbora guziz baliagarria ez dena nihundik ere beste pausuko egun batez gozatzen ahal.

Ikerketa horietarik baten arabera, bi ikerlek azpimarratzen dute galtze horrek badituela igandetako lana luzarat segituz beste ondorio batzu kaltegarri ditazkeenak "familia lokarrientzat".

Igandea, lanik eta eskolarik gabeko eguna, guziz egokia familia eta adixkideekilako harremanentzat. "Gizarte guziaren bizia orekatzeko gisan". Delako bi ikerlek egin lanaren arabera, buraso eta hurren arteko lokarria azkarki murriztua da burasoak lanean ari badira igandetan, beste egunetan lanean ari badira baino aise murriztuago. "Familiari pasatu denbora delarik gaurko egunean ere familientzat zutabe premiatsua".

Eta aski gogoan ote dugu nola egiten duten beren haurrak bakarrik altxatzen dituzten ama familiakoek igandetan lanean behar dutelarik arizan? Nola apailatzen dira beren hurrekin? Zer egiten dute haur horiek ama lanean delarik? Behar litazkea haurtzaindegiak igandetan ideki haur ttipienentzat? Eta atsedenguneak handiagoentzat? Herriko etxeak ados litazkea? Eta zentro horietako langileak?

Atsedanak adixkideekin, igandetan bi aldiz garrantzitsuago dira pausuko beste egun batez baino (83 minutu alde bate-tik, 42 bestetik) murrizten dira %82-ez.

Ikerketa berek azpimarratzen dute ere igandetako lanak hunkitzen ahal dituenak direla lan-gabezia gertatzeko irrisku handiena dutenak! Horrek erran nahi du igandetan lanean artzea onartzen duenak (edo izaitekotz lanean artzerat bortxatua denak) ez duela hori egiten arazorik ez delakotz bainan gisa hortako prekaritate egoeran delakotz eta ez ukanki egiazki hautuaren egiteko aukerarik .

Hola dira bildu (irabazi emendatze eta prima ttipi batzuekin) igandetako lanarentzat lehen "bolondresak"... Irabazi apa-legiak izanez , langile horiek ez dute hauturik eta 30 euroren ondotik dabilta, konprenitzeko baita.

Frantses estatuan segitzen den irabazi apalen politikak pusatzen ditu ainitz jende zernahiren onartzerat hilabete ondarran hobekixe heltzeko menturan. Coluche zenak ziona, "hilabete ondar egunak, orai izanki hilabeteko azken hogoitahamar egunak".

Griñagarri dena, Macron legekiarekin enpresa eta saltegi handi gehienak ez dituela gehiago hunkitzen pagaren legezko emendatzeak. Bestalde erran bezala, igandetan gehiagoren irabaztea ez da batere segurtatua, negoziaketa zerbaiten ondorioa izaiten ahal da bainan ez batere derrigorrezkoa..

Eta prekaritatean dagoen langileaz bestalde bada beste galtzale handi bat, komertsio ttipia!

Saltegi handiak lagunduago-eta gero eta gehiago azkar diten, hiribarnetako saltegiarentzat, bi edo hiru langile dituztenentzat, zailago da ihardokitzea! Ikerketa guziek segurtatzen dute hori, saltegi handiek idekiak egoiteko erretasun gehiago ukanez, komertsio xeheak ditu ondorioak pekatzen. Lanaren ministeritzak (DARES delakoak) dauka 30,000 lanpostu badirela hola galduak...

Igandetako lanpostu batek gal-arazten beste egunetako lanpostu bat

Ertain hirietan eta baserrian komertsante askok beharko ote dute beren saltegia zerratu igandetako idekitze horien gatik? Horrek oraino gehiago ahulduko ditu hiribarneak eta ekarriko ere lanpostu galtzeak... Nor ditake irabazle azkenean?

LABen inkesta: baimen berezi eskaerak Ipar Euskal Herrian

Joanden urtaril-otsailetan LAB-ek gutun bat igorri zioten Iparraldeko herriko etxe guzietan (orotar 158) jakiteko zozkatu galde ukanak zituzten saltegi batzuetan igandetan idekiak izaitzeko eta jakiteko ere galde horietan zer ihardetsia zioten.

Bixtan da, herri ttipi ainitzetan ez da komertzio handirik eta batzuk ez daukute beraz ihardetsi. Ukan ditugu halere 51 erantzun (herrien %32-a). Hala ikusi dugu herri askok ukana zutela galde bat igandetan idekitzeko buruz, batzuk baino gehiago berdin. Herri horiek izan ki **Angelu, Baiona, Miarritze, Bidarte, Bokale, Kanbo, Hendaia eta Donibane Lohizune**. Hiri handi edo handixkoak dira bixtan da hunkienak eta saltegi handiek dituzte delako galdeak egin.

Galde guztiak onartuak izan dira salbu Hendaia ukan duen bat, Herriko etxeak ihardetsirik arazaldeko oren bata arte idekitzeko baimena aise aski zela!

Mintzatu girelarik galdeak onartuak izan diren herrietako hautetsiekin, denek gauza bera erran daukute, kontsumoaren sustatzea, garapen ekonomikoaren arrangura, hori gogoan dutela onarpena eman. Horrek ez du koloretik guretzat! Igandetan erosten dena ez da erosten larunbatean edo astelehenean. Ez da gauza gehiago erosiko saltegiak igandetan idekiak direlako! Denek sosari kasu egiten dute hoin egoera latza jasaiten den keinka huntan!

Salatu ditugularik saltegien idekitzeak ukaiten ahal dituen ondorio kezagarri batzuetan, haurtzaindegiak edo (eta) atsedenguneak ideki behar asko familiarentzat, irriskuak saltegi ttipientzat eta hiribarnetako biziarentzat, deusik etzauku ihardetsia izan...

LAB sindikatarentzat ordu da geldiarazteko nagusien eraso hori asteko lanaren segida hola nahasi beharrez.

Aspaldixkoan, MEDEF ari da igandetako lanarekin 35 oreneko lan-astearen partez beste neurri batzuetan finkatu nahiz, "à la carte" frantsesez hoin poliki erraiten duten bezala! **Aski orai, aski!**

Igandetan lanean artzeko erretasunak izanez gero eta nasaikiago, nagusi handiak dira irabazle eta bereziki sail hortan denen aitzinean plantatuak diren saltegi handiak!

Hola dira saltegiak handi horiek beti handitzen ari! Ondresen Allées-Shopping, Ametzondo Shopping IKEA, Géant Casino, BAB2 Baionako aldean, Leclerc Kamieta Urruñan. Orai aski eta aski!!!

LABek zabaldu trakta: IGANDETAKO LANA OROKORTZEARI EZ !!! PAUSA EGUNETAN PAUSA!!!

LABek uste du igandetako lana orokortzen segitu ezker, besta egunak egun arruntak bilakatuko direla, komertzioaren logikak, lagunarte eta familiartean aurre hartuz.

ASKATASUN FALTSU BAT DA !!!

Igande eta besta egunetako lanak, dugun bizimodu eta elkarbizitza goitik behera aldatzen du. Hazkundera eta lanpostuak sortuko dituelaren aitzakipean, gure jendarte ereduaren funtsezko aldatzea.

Gure denboraren suntsiketa besterik ez da ! Hezkuntzari, pausatzeari, kulturari, aisialdiari eskeintzen diogun denboraren desegitea; gure ingurukoekin pasatzen dugun denboraren ezabapena; haur, iloba, guraso ta aitonamonekin, hurbilekoekin eta lagunekin elkarbizitza pasatzen dugun denbora desagertaraztea.

Igande ta besta egunetako lana, langileen sasi borondatearen gibelean ezkutatu nahi izatea, ziria sartzen saiatzea da ! Badakigu biziki untsa nagusi eta langileen arteko subordinazio harreman bat existitzen dela !

Era berean, egungo soldata apalek, langile kopuru eskasek, eta egoera prekarioek (batez ere emazteen kasuan), igande eta besta egunetan lan egitera behartzen ditu hainbat eta hainbat ; beren egoera sozial zailean gehiago ondoratuz. Guzti honek ezin gaitu axolagabe utzi !

Igande eta besta egunetako pausa, atzoko langileen borroken lorpen sozial garrantzitsua izan zen. Egundak, betikoen sakelak betetzen dituen kontsumismo baten mesedetan, kolokan jartzen ari dena.

Zabal gaituzen arteari, kulturari, naturari eta harremanei !!!

Astelehenean igandetarako kontsumismoa baino ainitzen gauza gehiago bada, persona osoak sentí gaituzen!!!